garren URTEA. 28e ANNÉE. | Nº 1421 | LE NUMÉRO : 5 CENTIMES | ORZIRALEA UZTAILAREN 10an VENDREDI 10 JUILLET | 1914

Herrialde guzietan toki onak badira;
Bainan bihotzak dio: zoaz Eskual-Herrira

ESKUALDUNA

JOURNAL BASQUE-FRANÇAIS HEBDOMADAIRE

ABONNEMENTS
Pays Basque..... 4 fr. par an.
France..... 8 fr. —
Étranger..... 10 fr —

RÉDACTION ET ADMINISTRATION : 69, rue Bourgneuf, BAYONNE
S'adresser à M. Clément MONGE, administrateur

PUBLICITÉ
Chronique locale..... 1 fr. » » la ligne
Réclames..... 0 fr. 60 —
Annonces..... 0 fr. 40 —
INSERTIONS A FORFAIT

ORO SOLDADO

Burua nahasgarri litake, egungo eguneko gizonekin, ikusiz nola, edo zoin zerez mintzo zaitzularik, elhe batetik bertzean, gauza beraz erranen dautzuten *ez* eta *ba*.

Berritan etzuten bertze solasik soldagoaren behin laburtzeaz baizik, eta gero lehenbailehen, ororen artean, herritar ala arrotz, auzo hurbil eta urrungo adichkide ala etsai, guziekin bethikotz bakeak eginik, gizon guziak elgarren haurride bezala ezartzeaz, besarkatuz orok oro.

Hindik harat zertako soldadogorik eta zerentzat? Gazte guziak adinik ederrenean, alfer atchikitze orde, diru zer nahi chahu-araziz bereri eta burhasoeri, eta Frantziari, *miliunka*, utz denak etchean, lanari jarraikiak. ororen onetan. Zer zoriona!...

Nehor ez soldado edo ahalik gutiena; soldado guti, hek ere ahal bezen laburzki oraidanik; eta gerochaho guziak libro.

Beren politika nahasi tzarrarekin maizenik mihietan zutena ere zen, eta da oraino askorekin : hau : « Emozu boza gure aldekoari eta zure semea ez da joanen soldado ; libratuko dautzugu osoki, edo bederen hunenbertzez ; *hogoi-ta zortzi egunik* eztu eginen » eta holako.

Hogoi-ta zortzi eta berrogoi-ta hamasei gezur irets-arazirik daude, diren bezalakoak, eta zonbeit ehun, zonbeit mila boz bildurik, — bethi tzarreko alderat — soldadogoko eginbidearen gostuz ; soldadogoari bethi khen khen eta khen.

Den guzia khentzea hitzemaiterainokoan, ondoko demboretan ; iduri-ta erresuma batek iraun dezaken soldadorik gabe !

⁂

« *Nehor soldado* » azkencan ez izaiteko ametsetik, bereziki gorrieri bozaren emailetarik nehor, huna non giren itzuliak, arte laburrez, areagoko amets huntara : « *Cro soldado* ».

Berritan, oro espantu eta haro, eta begietarat erhauts : heldu zela dembora, ja kasik jina, nehor etzela joan beharko soldado, *civilisation* delakoari esker, etzelakotz gehiago gerlarik izanen. Eta orai ?... Oraiko solasa da : Frantziako gizon guziak soldado bethi ; ez bi, ez hiru, ez lau, ez eta zazpi, ez hamar urthez, bainan *bethi*, bizi guzian, edo han harat, zahartu arte, chutik dagozino.

Orai arte badu haste bat, badu bara bat soldadogoak. Sarrichago *zozialist* eta hoien chedeak obratzen badire, soldadogoko dembora berezirik ezta izanen ; ez eta ere orai bezalako armadarik, beren buruzagi, egoitza, jaunztura bereziekin.

Zoin bere etchean egon ; handik hurbil, auzo hirira edo herrian berean herriko plazara bil noiztenka, *egun bat edo bi ;* guti, biziki guti, harmen erabiltzen ikasteko, eta gero berriz etcherat, berehala.

Beraz akabo soldadogoa ; ez gehiago soldado nehor ; eta bizkitartean oro soldado bethi, edo behin, luzaz.

Obedientzia, buruzagien alderako sumizionea, gerlako jakitatea, gerlari buruz hatsaren, beso-zangoen, buruaren azkartzea, ernatzea, heztea, noiz ardiets eta nola ?

Laborariek eta esku-lan, bizkar lanetan ari direnek paso, badakitela ja hein bat; on direla nekearen jasaiteko.

Bainan buru lanetan baizik ez usatuek, edo hetan ere ez, edo guti, zer egin ? Hek zer bilhaka ? Zer soldado ditazke hek ?

Halakoekin ederra litake « *la Nation Armée* » derasatelakoa !.....

Gerla bati buruz, erresuma osoa deus jakin gabe harmetan baino miletan hobe dela soldado guti bat, eta hek onak, hek egiazko soldadoak, ezin kompreni, diren bezalako zorock !!!

Zer nahuten ere ez dakite.

Ez dakite deus, boz biltzeko ororen nahasten baizik.

ASTEKO BERRIAK

Beti berak

Frantziako moltsa handiak duen diru eskasia handiarekin, deputatuak eta zenaturrak zerga berri baten egiterat doazi. Eta zer zerga?

Deputatu zozialistek aspalditik galdetzen dute zerga bat berezia, bakotchari, bere lanetik edo bertzela, urthe buru batetik bertzerat heldu zaion diruaren arabera.

Zozialistek sustaturik, lehenagoko deputatuek ja onetsia zuten zerga hori; bainan zenaturrek ez zioten beren baimena eman nahi. Azkenekotz, joanden astean, zenaturrek berek onetsi dute.

Zerk bada egin ditu zenaturrak hola gogoz aldatu? *Ribot* gorrasta, ministro nausi berriktan egon den hiru egunetan, gogoz aldatu izan da. Ordu arte goraki gaitzesten zuen zerga hori. Orduan, ustez hola bere karguan ihardok, erran zioten deputatu zozialist eta gorrieneri, onesten zuela hoiek galdetu zerga. Geroztik, nahiz deputatu gehienek aurdiki zuten bere kargutik, hitz beretan dago. Ahalge baita berriz ere itzulzeaz, erran diote zenaturreri, ikusi duela zerga horren beharra, ministro nausi orai egon den egun laburretan. Bertze zenatur hainiz ere jarreiki zaizko hortan, eta hola lege-geia onetsia izan da.

Zer gertatuko da hortarik?. — Zuzenez aberatsenek behar lukete gehienik joak izan, eta hola mintzo dire lege horren egileak. Bainan ez omen da batere hola izanen. Zozialistek eta gorrienek — baita hoitan arras aberats direnik — lege berria egin baino lehen, beren aberastasunak egorriak zituzten Frantziatik kampo. Hoien berri jakinik, aberatsenetan hainitzek berdin dute egin.

Nondik nahi duzu bada orai jakin, zer diru duketen hoiek, beren diruaren araberako zerga emaiteko? Bainan, beti bezala, diruden ttikiek beharko dute hortan ere pekatu. Hoien diru dena agerian izanen da, ez baitu balioko herriz kamporat egortzea, eta pagatuko du osoki zerga berria.

Barthou

Jaun ministro nausi ohi hori mintzatu beharra zen, *Victor Hugo* errepublikano handi zenaren besta batean. *Augagneur* ministroak, aurkitu gogo baitu besta hortan, erran du ez duela nahi *Barthou* mintza dadien, eta histu du haren izena.

Horra beraz biarnes deputatu gorri aipatua churi guztak baino beherago eroria. Oraiko ministroen ganik zerbeit ardietsi nahi lukenak, ez du zeren *Barthou* deputatua arartekotzat har. Holako goitibeheitiak gertatzen zaizko jaun horri; eta egun hautan arras beheiti jautsia da. Lehiatuko da bai naski oraino nolazpeit goititzerat.

Autrichiatik

Serbiako bi gizon baitire emperadoregeia hil nahi izan duena eta hil duena, jazarkunde handia da, Autrichia guzian, Serbiako jendeari buruz. Beldur izaiteko da nahasmendu izigarriak gerta diten hortarik.

Gizon gazte hilzaileak erran du, hainitzek Serbian batasun bat egina zutela emperadore-geiaren hilzeko, baitzakiten zer kaltea zuketen beren erresumarentzat, hori, egun batez, Autrichiako emperadore bilakatzen baliz. Horren hilzeko tresnak Serbiatik egorriak ziren *Serajevo* hirirat.

Serbiako jendeetarik hainiz baitzen Autrichiako eskualde zenbeitetan, gehienek ihes egin dute, edo kamporat ezarri dituzte. Erresuma hortako buruzagiak ichilik dagode, nahiz dichidu frango etorri zaioten, hoik ere heriotze hortaz hobendun balire bezala.

Angleterreti

Irlandako eskualdean, ala katolikoek ala protestantek beren soldadoak badituzte, eta elgarrekin gudukatzen hasiak dire. Errana dautzuet lehenago, nola Angleterrako ministroek eta deputatuek nahi luketen eskualde hori erdi bere gain ezarri; bainan zenaturrek ez dute holakorik onesten. Berdin eskualde hortako katolikoek nahi lukete beren herria bere gain, eta protestantek ez.

Zer gertatuko othe da azkenean? Ministroek eta katolikoek diote, ez dutela amorrik emanen. Odol ichurzerik gabe antolatuko othe da makur hori?

Suak desmasia handiak egin ditu Angleterrako toki zenbeitetan.

Boz emaile bilakatu nahi litezken emazteki nahasi debru heien lana othe da hoien ere?

Maroc

Guduak beti aitzinat, eta batzuetan bertzeetan baino minagoak. Joanden astean, badire gure soldadoetarik hamazazpi hilak, eta hiruetan hogoi-ta hamasei kolpatuak. Etsaieri ez zaiote eperik utziko, amor eman arazi arte.

Chinatik

Ohoin andana handi batek, elgarrekin batasun bat eginik, asaldatzen dituzte bazterrak; ezen, iragaiten diren tokietan, ez dute jendearen bizitza ez ontasunez deus acholarik. Izen-goititzat deitzen dire *otso zuriak*. Batzuetan badoazi gure *Tonkin* eskualdeko lurretaraino, eta han ditugun soldadoek badute lan, otso tzar hoieri buru egiten. Zafratuak badoazi, eta gero, gutienik ustean, berriz heldu dire.

L'ASSASSINAT DE l'Archiduc Héritier d'Autriche

De M. Jacques BAINVILLE, dans l'*Action Française* du lundi 29 juin.

Comme s'il eût encore manqué quelque chose aux alarmes que la situtation européenne inspirait à tous les esprits prévoyants, l'assassinat de l'archiduc François-Ferdinand apporte aujourd'hui de nouveaux éléments d'inquiétude. Par un phénomène singulièrement rare dans l'histoire, ce prince, qui n'aura pas été couronné, laisse, en disparaissant, un grand vide. Cet héritier présomptif tenait la place d'un véritable souverain régnant et d'un homme d'Etat de premier ordre, dont la volonté était prépondérante. C'est que l'ampleur de ses vues, l'élévation de ses principes, la fermeté de son caractère faisaient concevoir à son égard plus que des espérances chez les uns, plus que des craintes chez les autres : c'est une des personnalités les plus vigoureuses et les pulus entières de l'Europe contemporaine que les balles tirées par un jeune étudiant ont supprimée hier.

Le crime lui-même invite à de graves réflexions. L'archiduc François-Ferdinand a-t-il succombé à un attentat anarchiste? Est-ce la Révolution qui a armé le bras de son assassin? Nullement. Le mobile de cet assassinat est autrement redoutable. L'idée qui a poussé les conjurés bosniaques est plus ardente et pardonne moins que l'anarchie mourante, que le principe révolutionnaire déjà mort.

D'après les indications parvenues de Serajevo, s'il est un crime politique auquel puisse se rapporter celui d'hier, c'est celui d'Orsini, car il semble certain que l'idée des nationalités en a été l'inspiratrice. Le même principe, les mêmes désirs d'indépendance et d'unité nationale qui travaillaient l'Italie au milieu du XIXe siècle fermentent aujourd'hui en Orient. C'est, selon toutes les apparences, une période d'agitation etdes jours troubles qui s'annoncent dans cette partie de l'Europe. Et, comme toujours, c'est la France qui est menacée d'en subir le contre-coup et de payer les frais suprêmes de tout remaniement de la carte de l'ancien monde.

Il semble qu'on s'en rende compte, encore assez vaguement, toutefois, à Paris. La brusque disparition de l'archiduc-héritier a causé un malaise sensible à la lecture des premières notices nécrologiques qui ont paru hier. Quelle chose singulière ! François-Ferdinand était désigné comme le champion de l'autorité et du catholicisme. Il était le terrible archiduc qui, à la conférence de Londres, avait imposé sa volonté à la Triple-Entente et dont l'avènement passait pour devoir être le signal de la guerre universelle. Et pourtant il semble que le monde républicain le regrette et qu'il eût préféré voir ce prince dans la force de l'âge, dans la plénitude des ses facultés, présider aux graves événements qui s'annoncent... Telle est, supérieure aux préjugés de la démocratie, l'invincible communauté d'intérêts, comprise et pratiquée d'abord par nos rois Bourbon, — c'est un de leurs grands titres de haute capacité politique., — et qui relie la France à l'Autriche depuis que la maison d'Autriche a cessé d'être un péril pour notre pays...

Ces réflexions sont les premières que doive faire naître l'attentat de Serajevo. Et il est difficile aussi de ne pas remarquer la coincidence de cet événement avec les récents changements qui se sont produits à la tête de l'Etat serbe, l'abdication à peu près définitive du roi Pierre, l'avénement du prince Alexandre qui représente une nouvelle génération, la génération de la guerre orientale, sans compter la nouvelle d'une fusion définitive entre le Montenegro et la Serbie. Combien seraient imprudents et aveugles ceux qui méconnaîtraient la signification de ce rajeunissement des cadres, non seulement dans la hiérarchie dynastique, mais encore dans la hiérarchie des peuples! Le jeune prince Alexandre à la tête de la nation serbe, nation antique mais retrempée et renouvelée par la victoire et avide d'aller en avant, de pousser plus loin ses progrès, ce jeune prince représente l'avenir, l'Europe de demain où paraîtront d'autres protagonistes que ceux d'hier, avec des idées, des sentiments, des méthodes qui ne ressembleront en rien peut-être aux idées, aux sentiments, aux méthodes sur lesquels l'Europe de 1870 à nos jours a vécu. En face de la génération nouvelle qui monte, que d'hommes et que de choses paraîtront surannés!

Voilà sans doute des pensées qui peuvent être voisines de celles du vénérable Empereur François-Joseph quand, arraché à sa douleur et au souvenir de tous les deuils et des tragédies incroyables qui auront ensanglanté sa maison, son esprit de chef s'arrête sur les destinées de l'Etat austro-hongrois.

Mais c'est la grande vertu des monarchies héréditaires de porter leur renouvellement dans leur propre principe, de suivre le mouvement du temps et, à chaque génération d'hommes, de se régénérer elles-mêmes. Parvenu aux extrémités de l'âge, l'Empereur d'Autriche peut se reposer sur son arrière-neveu pour assurer la continuité de sa politique en l'adaptant aux besoins du siècle. L'arbre antique des Habsbourg reverdit, lui aussi, avec le jeune archiduc qui avance d'un rang sur les marches du trône par le crime de Serajevo.

Ce ne sont pas les difficultés qui manqueront au futur Empereur et certes sa tâche sera rude. Pourtant ceux qui croient comme y croyait Bismarck, à la vitalité de l'Autriche, ne s'en effrayeront pas outre mesure et ne se laisseront pas accabler par le nouveau coup qui vient de frapper cet Etat. Et qui sait si la mort de François-Ferdinand n'abolit pas certaines questions délicates qui, du fait du mariage morganatique contracté par l'archiduc, eussent pu se poser pour la succession au trône? On parlait quelquefois à mots couverts des projets que nourrissaient à cet égard certains hommes politiques hongrois. Qui sait si certains risques de complications ne se trouvent pas, désormais, écartés pour la double monarchie? Ainsi peuvent se trouver démentis bien des prophètes de malheur ..

Nous saurons, quant à nous, que le nouvel héritier du trône à qui son grand-oncle enseigne depuis longtemps déjà la politique, aura été à la plus grande école des rois. Près de lui, la future impératrice, petite-nièce du Comte de Chambord, représente encore les plus hautes traditions de la monarchie. Et, quoi qu'il arrive, François-Joseph II ne saurait commencer son règne dans des conditions plus redoutables que celles où François-Joseph Ier était monté sur le trône en 1848, puisque le vénérable Empereur poursuit paisiblement son long règne dans la capitale qu'il avait dû commencer par reconquérir sur la Révolution.

Jacques BAINVILLE.

AMERIKETAKO ADICHKIDERI

Ameriketako herrialdetan (*Argentine Californie, Uruguay, Chili*) *Eskualduna* errezebitzen duten adichkideri galdegiten dugu laguntza bat. Nahi ginuke han harat gure kaseta geroago eta gehiago hedatu. Beraz hango irakurtzaletarik bakotchak bil dauzkigula bat, biga, hiru lagunen kaseta sariak eta guri lehen bai lehen igor, irakurtzale berrien adrezak emaitearekin chuchen.

Berrichkak

FRANTZIAN

ZEZEN ETA MANDO.

Laval-eko inguruan zezen batek errainak hautsi diozka etcheko muthilari, eta tripatik adarrak sarthu.

Chambery-ko bidean, mando batek bere gidaria lurrerat aurdiki eta lehertu du.

ORTZI LAN

Hainitz galerna bazterretan, ortzi eta harri.

Bi emazteki, leihoaren ondoan ari zirelarik irakurtzen, ortziak erre ditu, *Cantal*-eko departemenduan.

Bi idi beren establian, *Mirande*-ko etche batean eta nausia berriz landan.

ZUBIA LEHERTU.

Lyon-etik hurbil beribil handi batek eztei batzuetako bazkaria zeramalarik, zubi bat lehertu du.

Ura behera juan da karrosa, gidaria itho, bazkariaz arrainek egin pesta.

BERIBILARI TIRO.

Beribil batek artzain bati lehertu diozka, *Moutiers* eko bidean ardi bat eta zakhurra.

Artzainak beribilari tiro egin dio hiruetan, bainan ez nahi bezen chuchen : ez du deus hautsi ez atzeman berinaz bertzerik.

BIHOTZA DILINDAN.

Macon-eko inguruetan behi batek egin du ume bat ikustekoa : aintzin zangoen artean bihotza dilindan, gorputzetik jalia.

TIROZ ETA GANIBETAZ.

Rouen-en, bi mariñel kolpeka lothu dire. Batek hiru tiroz bertzeari burua arraildu dio.

Bertze bi langile *Evreux*-ko ostatu batean samurtu dire. Alimaaleko ganibet bat sarthu dio batek bere lagunari tripatik.

SUGEAK AUSIKI.

Havre-tik hurbil lau urtheko muthiko ttipi bat lore biltzen ari zelarik, suge bipera batek ausiki du. Haur gaichoa handik laster hil da.

Bertze neska gazte bat, hemeretzi urthekoa, lasto meta baten ondoan jarririk bere pausaren egiteko, suge bipera batek ausiki du ezpainean, *Blois* hiritik hurbil.

Azken hatsetan omen da.

TORMENTINA EDAN

Privas-eko gizon zahar batek armario choko batean botoila bat atzeman du. Begiek edo sudurrak huts egin othe dioten; dena den, uste izan du aguardinta zuela: zarga zarga handik beretik igorri du targo bat ona zintzurra beheiti: : tormentina zen.

Gizagaizoak laster ezagutza galdu du eta hil da.

ESPAINIAN

OGIA KHARIOTU.

Madrilen bi sosez khariotu dute bolanjerek ogi kiloa; jende cheheari gaitzitu, lanik aski baitzuen hala hala ere egun guziez asetzeko; asaldura gaitzak izan dire dire karriketan, emaztekiak aintzineko; zenbeit oihu eta mehatchu entzunik daude okhin gaizoak; beren etche zokhoetan gorderik zauden, chuchur bazuten. Bertzenaz laster choko zituzten, ogi irinaren pare.

Azkenean berriz prezio zaharrerat jautsi behar izan dute. Urthe gehienez gerthatzen da uztailari buruz ogiaren khariotze hori, bainan ephe laburrez. Uztaren biltzeak bazterrak deskantsatzen ditu.

ZAPART EGIN

Oiredo-tik hurbil, mia batean su lothurik, hiru langile chehakatuak izan dire.

Palma delako hirian berriz, mekanika batek zapart egin du lanthegi handi batean; hamazazpi langile borthizki kolpatuak.

ANGLETERRAN

UNTZI GALDUA

Ameriketarik Angleterrarat zohan untzi handi batek harroka jo du Irlandia-ko leihorretan. Pasaiantez bethea zen. Jendeak salbatu dituzte.

AMERIKETAN

ZONBAT BERIBIL

Zonbat beribil othe dabiltza Ameriketako bide luzeetan barna?

« *Etats-Unis* » etako eskualdea nausi,

zuzen bezala, jendez eta moltsaz ere lehen lehena haitago aspaldion, lurrez bezala. Beraz eskualde hortan badabiltza burumban miliun bat eta h'ru ehun mila beribil; ez da mirakulu hoinbertze ichtripu gerthaturik ere.

Gero bigarren *Canada*. Hunek badauzka berrogoi ta sei mila suzko karrosa.

Argentinak hamar mila.

Mexikoak lau mila.

Eta guk *Frantzian*? Ehun mila. Sobera, itzainen eta ene gostuko.

TREINA ETA GAICHTAGINAK

Norte Amerikan, Moachan hiriko inguruetan, berrogoi- ta bortz gaichtaginek geldi arazi dute trein bat. Uste zuten jende guzia harriturik, gostuan sakelak arinduko ziozkatela: bainan uste baino gizon gehiago gerthatu treinan, eta moltsa bezenbat harma; tiroka lothu dire bi aldetarik, eta laster gaichtaginek lekhua hustu.

ZERGA BERRI

Ez da egun hotan bertze solasik ; orotan oro zerga berri hoitaz mintzo.

Hilabethe hunen lehenetik zen alabainan hoitarik baten hastapena : *impôt sur les valeurs mobilières* delakoarena. Hanitzek ez baitzuten sinesten behinere finkatuko zutela, guk hemenche, duela lau hibabethe, cheheki argitaratzen ginuen zerga hori, horra nun dugun lehengoen gainera bizkarrerat jina.

Bankoetan altchatu dute hau, bankoetako titulier zelakotz eratchikia ; ez rezeturren baithan. Kuponen pagamendutik dute beiratu hunenbertzeko bat : Frantziako titulien kuponetakotik gutichago, ezin ez bertze erresumetakoen. Ehun libera kuponendako, gelditu dautzute eskutik berrogoi sosetarik botrz liberaren arte hori, nungo baitziren ere eta araberan.

Asko aberats, eta hauien artean hanitz ministro, zenatur eta deputatuak, gorde zaizko delako zergari. Duela zonbait egun ja beren tituliak salduak zituzten, eta saria pausatua Belgikako eta Suissako bankoetan. Alemanek ba omen dute orai nahi bezenbat diru beren komerzio eta industriaren gure gostuz gure kontra oldarrian aitzinarazteko.

Aditua niz, bertzalde Eskualdun aberats hanitzek igorri dituztela ichilik beren sosak Argentinako bankoetarat.

Bethi bezala, bier-artekoak eta ttipiak dira izan ausikiak, hek ez baititazke ihes joan.

Bizkitartian badugu oraino zerga hortaz bertzerik gainera jinik. Zorrez ithoa da alabainan Frantzia; emplegatuek jana daukate; armada azkartu behar ukan dugu; Marokeko eskualdeak ere iretsiko dauku zerbait, lantzen : gure buruzagiak etzitazken egon bertze zerga berri bat asmatu gabe.

Asmatu dute *impôt complémentaire sur le revenu* delakoa. Iragan astean ondarrik da izan onetsia zenaturren baithan. Hau beharko da ichuri prezeturraren eskuetarat. Huna zer izaritan.

Urthe guziez, urtharrilian, eginen du nor-bederak izkiriozko dekhlarazione bat : zonbat errebenio duen, orotarat, eta nundik zaizkon heldu bere errebenioak. Deklarazionerik ez badu nahi egin, kontrolurrak berak dako izartuko zerga, bazterretarik adituen araberan.

Urthian bortz mila liberaz goiti mozkin duena da bakarrik izanen joa. Gizon ezkonduari barkatuko zaizko bethi bi mila libera; eta, laugarren haurretik goiti, hamabortz ehun libera bertzalde, haurkal.

Barkamen horien gatik bortz mila liberaz gainetik balin badu urtheko bere errebenioa, ageri da jazarriko zakola zerga. Zuzen ere da. Bortz miletarik hamar mila arte balin badu errebenioa, soberakin horren bortzetarik bat baizik ez dako hatzemanen zergak, eta hatzeman pozi huntarik gelditua izanen zako ehun arendako berrogoi sos.

Hamar miletarik hogoitara, ausarkiago lothuko zako zerga, soberakinaren bortzetarik biga hatzemanez; eta handik goiti; hamar mila liberako ozkatik ozkara, nasaikiago oraino : ausikia ehunarendako bethi neurri berian datchikola haatik.

Gutiak ditu zerga hunek minberatuko Eskual-herrian ; eta lothuko zaizkon bakarrak ere ez ditu andeatuko hanbat.

Bainan beha ontsa huni : salhatarieri esker eta deklarazionek arartekoz, gure buruzagiek jakinen dute chuchen hemendik harat nork zer duen eta nundik, zonbat ur chirripek hots dakoten egiten bere sakelako ithurria. Eta araberan dituzte pagatuko haren ondokoek *mortualak*.

Orai artio gorde baitzitaken asko ontasun, helduden urthe danik nekezago izanen da. Eta badakizue zoin izigarriak ditugun mortualak Frantzian : ehuneko hameka aitametarik haurretarakoak berak!

(*Ondoko egunak artio solas bera*).

LAPURDI

BAIONA

Foisseau, hilerrietako ezkinan den harripikatzalea bazoan iragan astelehen arratsetzko gauerdi irian here etcherat ,Hiriburuko pestetan izanik bere ahaide batzuen baithan.

Arsenal-eko ondoan, bihurgune batean bizikichko zoalarik bere bizikletaren gainean, uste-gabetarik jo du bidetik aski baztertu gabe gauaz utzia zuten puskaketako karro bat. Erori mustupilka.

Burua odoletan, chutitu da bera eta joan ospitalerat, othoi loth dezaten galdez. Hatzeman duen kolpea baino gaichtoagor ikhar zezaken.

Joan den astelehen arratsean, hogoi bat urthe dituzken español gizon langile bat Donapaleuko burdin bidean ari zena lanean, Baionarat jina, bere sor-herritar batzuen b'lha, berekin eremaiteko lanteği bererat, beribil batek aurdiki du lurrerat Sant-Ispiritako zubiaren gainean.

Zango batean min hartua ereman dute ospitalerat. Gerokorik ez omen du.

Mozueletako aitzinean, ama familiako gazte bat, Urketarat zoana, botatu du hau ere lurrerat beribil batek. Errota bat gainera joanik, lehertzer da han berean. Halere hobe *lehertzef*, *lehertu* baino.

Zango bat zaurtuchea ereman dute ospitalerat, han berean berritan luzazchko egona eri handi, eta sendo atheraia.

Duela zenbeit h'labethe *faillit* egina, *Banque des Basques* zelakoaren mubleak joan dire aste huntan enkantean.

Laneko mahain eder batek begia jorik hiriko jaun abokat bati, erosi du.

Etcherat eremaiteko altcharazi duenean erosleak, urhe eta zilhar, hamar soseko, hogoieko eta bertze, hamar eta hogoi liberako, andana bat erori zaiote lurrerat, pir-pir, batzu bertzen gainerat.

Orotara 135 libera omen.

Sendikak ez altchatu nahiz, han egon dire behin; azkenean hartu ditu. Hek gehiago, nausi ohiak zor dituenentzat; guti bada guti, gabea baino hobe.

Hauche dire lanak deramatzaguten Baiona huntan! Ez othe sobera, betan?

Zubi bat zabalduá, zer nahi gostarik, bertzea zabaltzen ari, ez despendio gutiagokoa,... huna non ja lothuak diren gararen handitzeari.

Eta bertze zenbat lan, hiriak jasan beharrak! Ezta mirakulu, zerga zergaren gainera baitoakigu!...

Union Régionale et Bayonnaise

Froskitzue behar dituzuen gauzak zuen adiskideeri eta aspaldi ezagutzen dituzuen botigeseri.

Laguntza bat behar duzuenean badakizue norat joan eta zuzen da sosa duzuenean joaitea hetara ; eta izanen dituzue gauzak non nahi bezain merke, onak, eta bertzalde *Timbreak*.

TIMBRE CHISTERAK dira denetarik abantailosenak, bainan ez ahantz ez direla emaiten « *au comptant* » erosten duteneri baizik.

SALTZALERI

Ez da timbre de l'U. R. B. baino hoberik. Zuen saltzearen konserbatzeko eta hedatzeko, timbre hori duzue merkeena eta primarik ederrenak eta baliosenak emaiten ahal dituena.

Jadanik baqira primak hiru lekutan .

BAIONAN, rue d'Espagne ;

DONIBANE GARAZIN, Jauréguiberry baithan ;

DONIBANE ZIBURUN, au Boulevard, Estoueigt baithan ; eta laster izanen dire bertze herri gotorretan.

Batasunak egiten du indarra.

Beraz emazue denek timbre bera eta dembora laburrik barnean ezagutuko duzue erran horren egia.

Timbres de l'Union Régionale Bayonnaise

Dépôt de Primes à :

BAYONNE, 20, rue d'Espagne.

ST JEAN-DE-LUZ, au boulevard, chez M. Estoueigt, coiffeur.

ST-JEAN-PIED-DE-PORT, chez M. Jauréguibéhère, receveur-buraliste, rue d'Espagne.

BIZIKI ON DA

On da biziki, jakitea, Baionako Halles karrikan den BELLE JARDINIERE oihal Magasinak ez duela « *succursale* » bigarren etcherik.

Jakitea on da gure otomobil eder, Pariseko kazetek eta orok hainbertze aiphatu dutena, badoala inguruetako merkatu handienetarat.

Zer nahi erroperia, jaunzterat prest, han bereen saltzeko direnez bertzalde, badauzka chantilun suerte guzietavik, magasinan ja josiak edo izaria emanez josteko ar.

MIARRITZE

Nongotar ere baita, *Mendiberry* deithu eskualdun soldado batek, Miarritzeko itzalpe batean hatzeman 57 libera eta 9 sos zauzkan moltsa bat, ereman diote berehala poliza-gizoneri. Biba hura!

Miarritzen, 3 urtheko nechka bat, zakur errabiatuak ausikirik, ereman dute lehenbailehen Bordalerat, arthatzeko han *Pasteur* zenaren erremedioz.

Hiru hilabetherentzat muthurrekoekin edo estekan atchik ditzaten zakurrak manatu du Miarritzeko jaun merak.

Agian hori askiko da, bertzerik ez dadin izan ausikia.

LUHUSOA

Bi Luhosoar gazte, Bordalen izanik etsaminetan, itzuli dira biak eskoletako *brevet*-aren jabe : aitzineko astean, *Anna Larralde*, achuantaren alaba, Fontarabiako Serora beltchetan egona ikasten; joan den astean, *Antoine Mendiburu*, Bel-lok-etik presentatua.

Atseginekin entzun dugu berri hori bi gazte hoientzat, hoien burhasoen eta sor-herriarentzat, ba eta eskolatzaile buruzagientzat.

Bat apezen, bertzea seroren eskuetarik atheraiak, nechka gaztea, entzun dugunaz, adin eskasa zuetakotz, dispentsak eta oro galdaturik eta ardietsirik joana zen. Beraz ez du erlisioneak ahultzen, ez itsutzen argitzen ba, eta azkartzen ikaslearen ala erakaslearen burua.

Halere adituko dituzue non nahi, ba eta, Luhoson ere, zer derasaten eztakiten batzu, mintzo gure eskolez : apezek, fraidek eta guziz serorek eztutela haurreri deus erakasten, « *fazoin eta murga* » pozi bat baizik.

Ea ez direnez herri beretan, ichilik egoitea kobeki egin lezaketen batzu, beren gostuko eskola *laikoetan* beren haurrak *bortz* edo *sei* urthez atchiki eta, ezin errezebituak baitaude oraino.

Halako batzuen izenak, bertzeak bertze, emaiten ahal ginituzke hemenche.

Daudela itzalean.

HAZPARNE

1.

Nehondik ez nitake egon ni ichilik,
Nahiz baden bertsutan ni bezen abilik.
Hasparneko phestetan urus niz izanik.
Ez baita kausituko han bezen ederrik.

2.

Eskerrak zor daizkote zeruko Jaunari,
Zeren dioten aro ederra igorri.
Partidak bazituzten denen jostagarri;
Soinulariak ere ziren choragarri.

3.

Guziz ederrena zen laugarren eguna,
Jendea gehienik gostatu duena.
Luzeko partida bat goizean lehena;
Bazkal-ta trinketian zuten bigarrena.

4.

Hirugarrena gero moda chaharrian,
Chistera ttipiekin, atchiki garbian;
Iraganak guziak bigarren chortian.
Pilotaren ondotik zabiltzan airian.

5.

Ez ginuen sekulan nehork asmatuko
Hoin airoski zutela pilot'ibiliko.
Ageri da demboran bazutela joko,
Oraino arras ona guzien gostuko.

6.

Larralde, *Duclos* eta *Beheran* gatetik,
Lemoin, *Ado*, *Diharce* bertze eskualdetik,
Seiak, jokatuz ontsa zoin bere phartetik,
Begiratu baitute partida galtzetik.

7.

Joko zahar eder hau abandonatua,
Ziztera konkor horrek du gaina hartua.
Zorigaitzez gaztea ez da kechatua
Bizikletak juan dako plekako gostua.

J. P. L.

Emak hire adichkide hoberenari baso bat

BITTER SECRESTAT

Je ne fume que le NIL

Bachenabarre

GARAZI-BAITA

Garazi-Baita izena duen etche handi ederra egunetik egunera goitituz doa Doniane-Garazin. Uztail hunen ondarrekò bururatzea uste dute.

Agorrilaren 15ian, herriko pestarekin, han beren lehen bilkura bachenabartar eskual-zaleek.

Ezen eskual-zaleen etchea izanen da oroz gainetik *Garazi-Baita*. Hiriko eta auzo herrietako eskualdun seme bihozdun batzuei esker, *Ybarnégaray* jaun deputatua buruzagi, delakotz eraikia Eskual-herriaren ohoretan.

Ukanen du barne bat gaitza bilkurentzat. Mintzazale argitu batzuek hitzemana daukute ja erasiko zauzkigula *eskuaraz* gure Eskual-herri maitearen iraganaz, oraiaz, etorkizunaz, haren ohidura zahar ederrez, haren zuzenez, harek libertatearentzat bethi daukan amodio ezin hautsizkoaz.

Noizetik noizera ezagut-araziko ere ditu *agerkizun* batzu (*pièces de théâtre*), nola baita askok ja ikusia duketen MAITENA : agerkizun osoki eskuarak, agerkide (*acteurs*) eskualdun garbi batzuen ahotik.

Izan bedi *Garazi-baita* mendiez hunaindiko Eskualdun guzien bil-toki eta lokarria!

Ziberoan

SALHATERREN LANAZ

Igaraneko mintzaldiaren segida

Segida bat ukhen behar zian *Eskualduna* kasetaren igaran asteko elhaldiak.

Ezin zen hortan baratzen, mintzaldi hori.

Baganakian ontsa guk heben aiphatu hirouzpalaur *Ourdinarbetarrek* beran aldian ihardetsiko ziela.

Ihardetsi ere die.

Odol hotzian? Lañoki, *Manechak* dion bezala?

Ezetz diogu guk.

Ikhous bestalde, hor, zihauriek, eia egiatik ari g'renez edo ez; ikhous zihauriek nor den mingartzen; nor den gogoa lachian mintzatu eta nor den erreusten.

Ezbaika batetan, phuntuz phuntu joan behar da; ez du deusetz erran nahi khechiak, are gutiago thermañu thorpiak eta mehatchiek berek.

Sail bat harturik, saillari jarraikitzeko geietan umen dira *Ourdinarbetar* letera izkiribazaliak.

Aitzina ari bite; zuzenak gathatzen dian lekhia beno handiago bat *Eskualduna* kasetak emanen dere; behar dena oro, igorri gei deizkien leteren czarteko. Horrez segur izaten ahal dira, bai etare imidioaren gañen imido berriz joiten badie, gu ere ez 'girela ichiltuko akabo jo ez duguno, segur beikira chehetarzunak oro igorriko deizkiela haiek gezurstatu berriketariek.

Houna errandirelako h'rour leterak :

A Monsieur le Directeur-Administrateur de l'*Eskualduna*,
69, rue Bourgneuf, à Bayonne.

Je vous prie et au besoin vous requiers d'insérer dans votre plus prochain numéro la communication ci-jointe en réponse à l'article me concernant paru dans votre journal le 3 courant.

PHETIRI IRATCABAL.

Ourdignarbé. Eskualduna kasetaren correspondent edo argui emailiari.

Hasteco behar çutut erremestiatu çouré caseta estimatian aipphaturic içatez eguiten deitadaçun ouhouriaz.

Mintza guitian oray gouré différentsia caousatsen dien arazouetsaz. Hassico gutuçu sinadura gabé den lehen pleintatic. Beste hanitchec beçala entzun dit affera harez mintsatsen ordian eta ousté dit orai ere çu beçaign ountsa errenségnaturic niçan hartan gagnen lékhian présent erénetzaz.

Ene letteran aipphatsé illabur bat eguin badut éré hayen erranetan gagnen estaquit nour occupatu den ondoco detailletan.

Dioçu hastetic buru oro guéçurrak direla Estaquit oray gueçurrak direla erraitia beçaign aisa içanen saiçunez mementa jin denian proben ekhartia. Hori ordian ikhoussiko. Arté hountan nic éné erranac ditit mantenitzen. Bay Albisti Michelek eman ukhen dioçu ehun libera eta besté ehun hiztaman ondotic emaiteco bére illobari Ybarnégarayi botza eman léçan eta. Eta horri berak esqueniz harek galthatu gabé.

Etzitiela batéré estona çouré erranac eta ene errensegnaçalenac entzun ondouan préfératzen balimbadut hayenen sinhestia. Badiçu dembora çu eta çouri arguy emailiak guéçurti approbiric çutiedala Hayentaco eztit mesfida içateco arazouric oranokouan ja. Ez othoy arren horrégatic estona.

Aldi hountan espeitut demborarik mintzaldi luçé suçena nuquien béçalaco baten eguitéco, guéroco aldian mentzituco dit ahatseric baduçié ohiterasteko eta ber demboran iacourzalen édificatzeco gorago aipphatu dudan çien guécurti approbatzeco caousa chéhéquy.

Biguerren pleinta bardin enetaco hartzen dudana eztuçu sobera attaquatzen. Pharti orduco lehenac duquien beno haboro duda gabé eztiçu guéçurric erraiten.

Aitzinara éré isseyatuco nuçu ahal oroz içatera salhater bena éguia erraïlé, içan gabé c'ec beçala guéçurrez salhater.

Méréchi duçun errespetu eta confidantcharéqui çouré cerbutchari.

PHETIRI IRATCABAL.

Ourdignarbe,

Monsieur l'administrateur du journal l'*Escualduna*,

Je vous prie et au besoin vous requiers d'insérer dans votre prochain numéro la communication suivante en réponse à votre journal du 3 juillet courant.

Jaun caseta eguilia.

Ouhoure eguiten deitazut zoure caseta estimagarrin- aipazez. Erraiten deitazut ene etchen obra berri bat egin guei nila eta ene osabari galthatu deodala haren sosa. Hori eztuzu egia jauna, ene etche emendioua egin dit eta phacatu, ene osabari moursa hertu gabe eta eztit ouste badin ihourk ere ikhoustecoric.

Diozu bozka aitzineco egunetan ene osaba bildu nahi izan dudala bestaldila. Hori jauna beste gezur bat : eztiot ene osabari ez bozka egunian, ez aitzinetic, deuse erran bere opinioniaz, ezpeita nic gobernatzecoua.

Bestalde erran duzu ehun liberan phartes berrehun emaiten zeitala etche emendiouaren, segur zela'c sos emaiteric etzukila. Bena troumpatu zuzun arren ehun libera eman zitazun eta beste ehun hitzaman, buleteña emaiten zeitala'c eta bere aitzinin eraman botz emangiaco salala. Eniozun kasu egin nouena zen billeta, conditionic beicuntin harec nahi zinaren emaiteco. Eta jaun erretorareu abisa estakit ukenic zenez, bena nic dakidana da, jaun hori erranic zuzun bere gaitzañari oraico aldin beharco nila hec nahi zien billeta sarthu, berrehun libera osabak eskentzen zeitala. Bena baduzu diffentzia bat galthatzetic eta eskentsila gorachigo ikhousten duzun bezala.

Diozu orano etsaquila nourekin zin affera gaicho fede hounac. Ordin haren eta ene counpagnan zuren gizonac zouri berri emailic bezain estimagarri tuzu gutiena; eta azken horiec uzten bagutie goure goustila osaba eta ni hanitch acort jinen gutuzu, errana den besala, otsouak eztizu bere aragitik jaten.

Zoure zerbutchari merechi duzun estimiarekin.

CURUTCHET THOMAS.

Ordiarp

Monsieur le rédacteur de l'*Escualduna*,

Je vous prie d'insérer et au besoin vous requiers dans votre prochain numéro l'article ci-dessous en réponse à votre journal du 3 juillet qui me prends à parti e

Jaun caseta eglia.

Zouré caseta errespetagarrin uken dit ouhouria aiphaturic izateco bozcaco ichtorientaco.

Jaun erretorai oldartu nizala erraiten deitazut Michel Albistiren billetaren gañen. Bena hori hala duzu eta zouri ere erraiten deizut ihourk ere eztila zuzenic electur bati sakolaren ikertzeco jaun erretorac ez bestec.

Michel Albistic egin izan zizun billeta bere goustila ihourk ere aholcuric es Judaskériaric erran gabe, Boscq Landetcheparen, Eyheramendi Ajujarten, Tomas Curutcheten eta ene aitzinin, bai eta bere illoba Tomasena.

Eta desafiatsen dit zouri berri heltzalia hories besteric han eztela igan baizic ere Michel Albistic bere illoba tincatu nahi izan zizun sosaren medios.

Erraiten deitazut legiaren iracourtzen eztudala demboraic igaraiten. Eztit goustic gutigo aizinaric ez eta coumprenitzen ere gaiza handiric zeren ezpeitut zoumbaitec bezain beste zaragoil guibelaldi higatu escoletaco banquetan.

Eta beste zoumbaitec ere ountsa egin liozie legia utz balizé hartaco phacaturic dienen eta beren eguinbidic betha usatu tenoretan.

Diozu zer aujamien artin aguitu den Michel Albisti, espeita araous itchoustu gaicho mothicoua, bena zoumbat nahi aujami giren ezcutusu gu batac ere, harec aste bat eguin dian olhan izan artzain orano ja.

Erraiten deicuzu mintzo guirela guezurrez. Ez jauna, hori eztuzu hala, guezurrac uzten tizugu zouri berri heltzalentaco zeren ezpeitie orano eguia bat erran.

Gueroco ald la artino, caseta eguile jauna.

MENDIONDO MARTIN, maçon.

Eia zer ihardetsiko deien goure berriketariek.

Haien aldi da orai.

Mintzatzeko zuzena badie;ahala ere bai. Balia bite beran zuzenaz; chuchenian direla erakouts beze.

Baten eta besten oundotik erranen dugu guk ere goure hitza-, gogoak hala emaiten badeiku eta arterik aski balinbadugu.

E.

Kampo lanak eta Soldadoak

Beroenian dira kampo lanak, eta langilerik ez, edo balinbada ere, hanitchez gutiegi.

Hiri handietarat badoa oraiko gazteria, oustez eta han bere sor-herrian beno bizipide hobiagorik khausituko diala.

Ere geroago-ta haboro husten ari dira herri eta bas-herriak.

Eta hori laborantcharen damu handitan.

Gazte horietarik ere badira hanitch soldado joan direnak, hogei ourthetakoak berak hartu beitutu zerbutchu lege berriak.

Lege beharra da lege hori; ezin hausten den legia.

Halerik ere « *permissions de moisson* » direlako horietarik soldadoer emaiten dere maiatz erditarik eta azaro erditarako arte hortan; emaiten lehen beno *konjil* haboro, bai etare lehen beno aisago. 8, 10 haboroenetik 15 egunen etcherat igorten dutie soldado *konjil*-dun horik, beren etchenkoak lur lanetan lagunt ditzen.

Burhasoeri da beren semiarentako « *permission de moisson* » delako horren galthatzia.

Semia soldado dagon *errejimentu*-ko *colonel*-ari izkirabatzen die, nola dutien beren kampo lanak ordutan behar urhentu, burutan joaiten lagunt litzakiala beren seme soldadoak, gathegiten derela arren « *permission de moisson* » delako bat eman dizon ahal badu nihoulaz ere holako phuntian.

Phuntu hori, noiz seme arren soldadoa egun zombaiten berenganatu nahi lukeien, berek markatzen die.

Jaun merak aski du gero burhasoek eman chehetarzunen bermatzia, egiati d'rela chehetarzun horik oro, eta haien leteraren *kajetaz* joitia.

Bere bidian joanen da letera eta houn hartuko du *colonel*-ak, soldadoak berak merechi dialarik, soldado houn balinbada, soldadoaren etchenkoek galthegin deiena.

MAULE

Adressé par les signataires au Président du Bureau chargé d'examiner l'élection de M. Ybarnégaray.

Monsieur le Président du X^e Bureau,

Les dernières élections législatives dans l'arrondissement de Mauléon ont été l'occasion d'une pression inouïe. Nous avons pu voir les membres du clergé descendus dans l'arène, comme de simples agents électoraux. Le vicaire général lui-même parcourait le pays la veille des élections; en chaire et au confessionnal les curés ont terrorisé par la crainte de l'enfer, nos populations encore très arriérées. Partout, ils ont dit qu'il valait mieux tuer son père et sa mère que de voter pour le candidat des républicains, allant même jusqu'à refuser l'absolution à ceux qui ne voulaient pas accepter de bulletins marqués. Leur tâche leur fut facilitée par la communion de Pâques. Dans le canton de St-Jean-Pied-de-Port ils ont retardé cette communion de 40 jours.

Un des sermons les plus caractéristiques fut celui de Béguios où il raconte qu'il avait reçu dans la nuit visite d'un paroissien depuis longtemps décédé qui venait le supplier d'intervenir auprès de sa famille pour qu'elle ne vote pas pour Guéraçague car, en le faisant, elle s'exposait aux flammes éternelles qu'il subissait lui-même, pour avoir accompli un acte pareil de son vivant.

Il est impossible de croire à pareille crédulité : elle existe cependant. De tous les coins du département et de la France, les ecclésiastiques basques tels l'abbé Mignacabal (Sauguis) l'abbé Chilibolost (Uhart Mixe) sont venus pour presser sur les consciences de leurs familles.

Quant à la corruption, elle s'est étalée cyniquement et au grand jour d'abord dans toutes les communes, sans exception ; pendant plus de 15 jours les auberges sont restées ouvertes aux frais du candidat clérical.

